


LV-3

JAUNGOIKO - ZALE'REN IDAZTIAK

+



AÑASATE'KO

EUSKAL-EGUNETAN

EGUSKITZA EUSKALTZAÑAK

:: EGINDAKO ITZALDIA ::


AÑASATE'KO EUSKAL-EGUNEKO ITZALDIA

Euskal Biblioteka Labayru



1021676
Linguistika-4/(104.libx.)
Liburuxkak

JAUNGOIKO - ZALE'REN IDAZTIAK



AÑASATE'KO
(MONDRAGON'EKO)

EUSKAL-EGUNETAN

EGUSKITZA EUSKALTZANAK

:: EGINDAKO ITZALDIA ::

1927'garreneko Iraila'ren 4'an.

IRAÑKOLEA




IDAZTEGIA

GAUBEKA

Beñmeo

1928

Bizkaya



EUSKAL - EGUNETAKO ITZALDIA

Interroga... majores tuos et dicent tibi.

(EX DEUTERONOMIO, CAP. XXXII, VER. 7).

ASPALDI onetan kirol eta jolas-zale andiak egin gara. Aize garbia artuaz mendi-goyetatik ibiltea osasuna dala-ta; lasterketa, ukabillketa, ostiko-pelota, edozelako zein-geyagokak, kirio ta zañak indartu ta gorputza sendotzeko, berebizikoak dirala-ta, gure gazteak gogo ta biotz ofetan dagoz; jolas ofeitan aspeztzaka diardue.

Gorputza indartu ta sendoagotzea ondo da-ta, jolas ofeik — osasunari kaltea lekañkion geyegikerien bat egin ezik—txarño dagozanik eztiñot; baña, entzun: gizona ezta soin edo gorputz utsa; ba-dau gizonak gorputza baño geyago, ederaño, bikañago danik be: bere gogo, bere arimea. Gizona dan gizonak bere arimearen almenak landu, adiña argitu ta gogo sendotzeko alegin egin bea dau lenen: augaitik soñari aldi ta asti guztia emon eta gogo-jolasak, gogo-indarketak, burua argiz eta biotza kemenez beteteko egoki diran zeregin eta lanak albo batera iztea, ori txarño,

oso txarto legoke. Aintziñakoak be guztiz egoki esan eben: *Mens sana in corpore sano*. Gorputz sendoan gogo (arima) azkar, bizkor, zindo ta sendoa bego.

Gaur egunean gazte asko gorputzari dagokiozan jolas oneitan buru-belarri dabiltz, ori baño beste amesik be eztauke: gogoaren jolasak, ostera, burua argitu, biotza sendotu ta gizona gizon egiteko diran ikasketak; oneik agure zañen zeregiñak bai liran, guztiz, zearo itxi dabez. Bere senean dagon gizonak, ori ontzak ezin emon legike. Zorionez, gazte guztiak eztabe ori egin, ez. Gogoari dagokiozan eginkizun eta ikasketak benefan andietsi ta aintzat artzen dabezan gazteak be badira: asabakandik datoñkiguzan, izakera berezi, oitura on-garbi ta euskera zâr-edeña galtzen ekus-teak, atsekabe andi, naigabe samiña emoten dautsen euskaldun zintzoak ba-dira aintziñako Añasate ta oraingo Mondrago one-tan be. Politika-gauzak alde batera itxi ta anai lez alkar arturik, gaurko jai oneik gertu ta antolatu dabez. Lenengoak ezfira: 1896 - gañen urteko Garagañila'n be, euskal-jayak andiro ospatu ziran emen. Orain bañiro euskal-eguna egin eta ospatzen dogu, Au dala-ta ¿zer esango ete-dautzuef?

Jesus'en Lagundiko Aita Kardaberaz jakintsu ta santuak, gizon argi ta Jainkozale andiak «EUSKERAREN BEÑI ONAK» deritxon bere liburuan auxe be idatzi eban: "*Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du*". Kardaberaz'en eretxiz Jainkoak nai dauan ori euskaldun guztiok be ziñez, benefan, zintzoro nai izan beaÑ gurula; neure itzaldi onetan orixe azaldu ta adierazi nai neuke...

* * *

Euskalduna ta euskeraz mintzo dana, euskera darabilana, euskeraz itz-egiten dauana, gauza bat eta berbera dira: augaitik euskera guztiz, zearo galduko ba'litz, euskaldunik ez legoke ta

Euskaleñirik ain gitxi. Euskera zeatz galduta gero be, beař ba-
da gure eñi oni askok Euskaleñiaren izena emongo leuskioe; baña
ori ilunari argia, txiroari aberatza, gaisoari osasuna, eriotzari
bizitza deitza beste izango litzake; izanik bako izen utsa,
izen aizuna, berenez guzuña, euskera barik Euskaleñirik ezin
izan daiteke - ta.

Euskera ezta alderdi bat edo besterena, euskaldun guztiona
baño. Guztiona dalako, guztiok maite beař dogu. Euskaldunok,
zoritxařez, geure arazo ta gora-beratan sañi ezin alkař ařtu izan
dogu: guztiona dan euskerari, euskeraren biziari, dagokiozan ara-
zoetan be batean aizkide bestean arerio, orain besařka gero atza-
pařka, gaur mosuka biar mustuřka ibili gara sañi, zorigaiztoz
sañiegi; baña ori txarřo dagola ħnok eztaki?: guztiona dan eta
guztiok bardin maite beař geunken gauza batean ořelan ibiltea,
egin geinken zorakeririk andiena dala ħnok eztaki? Zer? Oben,
gaiztakeri andi ta izugařiren bat egin ete - dogu? Ori dala - ta
gure eñi onek bere bizkařean Jainkoaren zigořa ete-daroa? ħAla
euskaldunok, atso zãřak lez, guztiok zarmindu ta txotxindu
egin ete-gara? Geure zentzuna osoro galdu ezpa-dogu bein-
tzař, orain ařte sañi egin dogun oker ori ezautu, autořtu ta zuzen-
du beařean gagoz.

* * *

ħEuskaldunok noizko ta nondikoak ete gara? Gure aintzi-
ñako arbasoak nonbaitetik etoři ziran aona; baña nondik eta
noiz? ħñok eztakit! Jesukristo gure Jaunaren etořera baño askoz
lenagotik euskaldunak emen egözala, ori iñok ezin ukatu legike;
baña noiztik aona dagozan dakianik iñon ezta ageri. Aldi bateko
iberotařen ondorengoak ete-gara? Len jakitunik geyenak ori uste
eben: gaur be ba-dira ori uste daben batzuek; beste askok, os-
tera, ezetz diñoe. Dana dala, iberotařen Ugařte edo Península

deritxan lu'raldean aintziña be izkuntza bat baño geyago-bea' bada askotxu-egiten zirala dirudi. Aintziñako izkuntza aetatik, bat izan ezik, beste guztiak il eta befiko galdu ziran: batxu ba-ka'rik bizi da: euskera zâra. Aintziñako mintzaira aetatik gelditu dan baka'ra ta Europa'ko zârena dalako, izkelari a'otzak, erbes-teko jakitunak, au'rez diño: gaur egunean jakitunentzat leba, ga'rantzi, inportantzirik geyen daukan izkuntza; aintziñako gauza askoren ba'ri emoten dauskulako, onurarik andienaz ikasten dana, euskera da. Alemani, Austri, Olanda ta Frantzia'ko izkelari jakitun asko eretxi o'fetakoak dira, ta uste o'etan dagozalako, euskera gogoz eta e'otik ikasten dabe... Eta guk, bere semeok, maite ezaz, erabili ezaz, ipizki zâra bai'litzan zokondora jau'rtiaz, ilten itxiko ete-dautsagu?

¿Zenbat urtez, zenbat gizaldiz bizi izan da emen euskera? ¡Au be iñok eztakil! Gure etxe, mendi, zelai, aran, ibar, solo, latzin, ibai, ituri ta zoko guztiei euren izenak euskerak emon dautsez; ia toki guztiak euskal-izena daroe; izenez euskaldun dira. Gauza ta toki oneik euren euskal-izenak galdu baño len, euskera euskaldunen gogoetan il eta beren ezpanetan guztiz, betiko ixilduko ba'litz, adimen, biotz, eta zentzun bako gauza mutu oneik be, adimen eta biozdun euskaldunak baño euskaldunago izan dirala esan bea'ko geunke. Ainbeste euskal-izen dauzan gure lu'alde oni bere alde guztietatik euskal-usa'ña dario. Ori ta guzti be ba-dira gure artean euskera bape maite eztaben euskaldunak: ba-dira go'oto dautsenak be. ¡Euskerari go'oto dautsen euskaldunak! ¿Ori zelan izan daiteke? ¡Izan bea' ez leuken beste gauza asko diran lez! ¿Ez al-dira gurasoai lotsa ta itzala galtzen dautsen seme-alabak? ¿Ez al-dira euren buruak ilten dabezan gizonak be? Eta ori zelan izan daike? ¡Zuzena itxiz, oke'ra egiñaz! Euskerari go'oto izatea be olantxe da: egin bea' litzaken zuzena autsiz eta iñoiz egin bea' elitzaken oke'ra jaukiz ta egiñaz.

* * *

Gaur egunean erdera nai ta ez jakin beař dala? Erdera jakin beař eztanik ez-dautzuet esango. Erdera baten ordez asko jakin al ba-dira, ainbat oba; bařa erdera jakiteko, euskera itxi ta ařtu egin beař ete da? biak ezin ikasi ete -gegikez? Europa'n bi izkuntza batera darabilezan efi askotxu dagoz: amaren alfo ta magalean ikasi ebena ta euren garatz eta arazoetarako beař daben bestea, agintariena. Biak ondo ikasi ta bakoitza bere garayan edeřto darabile, bai Zuiza'n, bai Beljika'n ta bai beste efi askotan be... Gu aek bařo tentel eta totelagoak ete-gara? buru txarařoa ete dogu? Eta bařdin aek bařo zozo, txaldan eta ergelagoak ezpa-gara, aek egiten daben ori ęguk zergaitik ez? ęTxaldankeriz ala alpeřkeriz? Totel eta txaldanagoak garela autořtzea, gureztat lotsagaři litzake; bařa zabař, alpeř eta nagia-goak izatea, askoz be lotsari andiagoa da, ta euskaldun asko lotsari goři ori autořtu beařean dagoz. ęAtxakia ugari, anduřeri ta alpeřkeria nagosi ta euskera ikasi ta erabilteko gogo gitxi! Euskeraren arerioak oneik dira: oneik ezpa'lira, euskera bizi dan bařo azkař, bizkoř, mardul eta sendoago biziko litzake.

Euskera iztera erdera jakin beařak ezkaroz. Ori esan bai, saři esaten da, bařa guzuř biribila da. Egia ba'litz, euskera lenen itxi ta ařtuko leukienak ęnortzuk izango litzakez? ęZetan esan be ez! Erderaren beařizanik geyen daukenak! Eta oneik ęzeintzuk dira, gizaseme ala emakumak, mutiřak ala neskatxak? Gudaritza dala, euren ikasketak erderaz egin beař dabezala, euren ogipidea eskurtzeko be saři erdera eskatzen yakela-ta, mutiřak askoz be erderaren beař geyago dauke; bařa euskera mutiřak bařo neskatxak lenago, eřezago ta laisteřago izten dabela, ori eztaķianik ba ete-dago? ęErderaren beařizan gitxiago ta eřdel-zaleķeri geyago! ęZer esan nai dau ořek? Euskera iztera garo-

azan *zer ori* eztala, geyenez beintzat, érdera jakin beara, andúteri ta arópuzkeria baño. ¿lñoiz entzun dozue oneik eriei on eta mesede egin dautsenik?

* * *

¿Zu nor zara? Ni euskaldun jatoía. Euskaldun jatoía ba-zara, zeure asabak maite beaí dozuz, euren antzeko izan beaí dozu. Zeure arbaso ta asabai itandu egiezu ta nor zaran eta zuk zela-koa izan beaí dozun eurak esango dautzue. "*Interroga... majores tuos et dicent tibi*". Eta egiz, geure guraso ta asabakin ertsien, estuen, ondoen lotzen gaituan lotzaiki edo txibista, euskera da. Gogoaren (arimaren) izpílua arpegia dala esan dabe batzuek; baña ori saíi eztala egia izaten ba-dakigu. Aintziñako grezitarak askoz be zeatz eta zuzenago esan eben: gogoaren izpílua izkuntza da. Eta ziñez, geure bañeko bizia, geure gogapen, asmo ta gurariak izkuntzaren bidez azaltzen doguz. Lenengo gure gogoak an, bañean beretzat itz - egifen dau: gogapen, asmo, naikunde ta gurariak, gogoaren itzak lez dira: gero bañeko izketa ori geuk nai izan ezkerro, aozko itzez besteai adierazten dautsegu: oregaitik gure gogo ta izkuntzaren arteko zer-ekusi ta artu-emonak benetan ertsi, estu ta arigariak dirala; gizonak ageriko gauzetan izkuntza baño bereago dauanik, bere gogoaz zer-ekusi geyago dauan gauzarik, ezertxu be eztaukala jakitunak eretxi batez autoítzen dabe. Au aonela izanik, gure asabak itxi dauskuen ondasunik ederen, bikañen, berenen eta bañekoena, euskera da.

Asabak gauza asko itxi dauskuez: euren lanez irabazitako ogasunak, euren izerdiz bustitako luák, euren oitura garbi-ederak; baña gogoaren izpílu bikaña izkuntza dalako, asabak euren gogoa ondoen euskeran itxi dauskue. Geure arpegia izpíluan lez

asaben gogo ori euskera zâr-maitegari onetan dakusgu. Lo-yola'ko lñazio deunak, érderaz idazten ebanean be, bere gogoa euskalduna zala, euskaldunak lez oldoztu edo pentsaten ebala uründik be ageri dau. Zegaitik ori? Bañeneko ta azaleko izkuntza, gogoa ta mintzaira beti alkarëkin dabiltzalako.

Orain esadazuete: asaben azufei ixeka, iri ta bañe egiten ¿nor azañtuko ete-litzake? Eta azur oneik ¿zer dira? Gorputzen azuzki ta ondarak, besterik ez. Gogoa gorputza baño geyago da: asaben gogoaren loñatz, aztaña ta agerketarik ederenak euren izkuntzan daukaguz... Eta euskerari, geure asaben gogoa ain ederño darakuskun izkuntza oni begirapen, lotsa ta maitasunik ez ete-dautsagu izango? Urteen astunaz bere gorputza makur, auldu-ta daukan ama naiz amandre zârari bere seme ta ilobak iri ta bañe egingo ba'leutse, biotzik dogunok ¿zer esango geunke? Euskera euskaldun guztion ama da: beñeun gizaldi euskaldun baño geyagoren aztarnak bere arpegian daroazan amandre zâr-aguñgaria da: augaitik euskerari lotsa galtzea, geure auñetiko gizaldi guztiei lotsa galtzea beste da; gure euskera onetzaz iri ta bañe egitea, arbasoetzaz be iri ta bañe egitea: asabakin lotzen gaituan lokar-irik ederena, bañnekoena, gogozkoena ausi, uratu... ta asabai bein betiko agur lotsagabea egitea lez da. Seme onai dago-kionez geure asabak maite ba-doguz, aekin ain ertsi ta estu lotzen gaituan euskera be maite beañ dogu.

* * *

Beste izkuntza batzuek noiz eta zelan sortu ziran ba-dakigu. Euskerak — dakigula beintzat — emen luñean ez aitarik ez amarik eztau. Jaunak emon eutsen gure asabai ta oneik itxi dauskue guri. Jaunak emondako izkuntza onek Jaunagana garoaz; oñegaitik esan eban Kardaberaz Jaungoikozale andiak: "*Euskerak*

burua jasotzea Jainkoak nai du". Eta egiz, orain arte beintzat, euskera gure siñesmenaren (fedearen) lagun andia, aizkide laztan-kutuna izan da. Kristiñau izatea beste lu'eko arazo guztiak baño zerbait geyagotan daukagunok, auxegaitik bakarik be euskera maite-maite izan bea' geunke. Izkuntza zearo galtzeak erien siñesmen eta oitura onai be kalteak daka'zkie. Beste eri batzuek alde bat itxirik, esadazue: gure eri onetan siñesmena sendoen, inda'rsuen ¿non bizi da? Oraindik euskeraz itz-egiten dan tokietan ala osoro galdu daben beste o'etan? Euskera zearo galdu dan tokietan aintziñako oitura onak be noizbait izan zira-la, baña orain ezlirala geure begiz ekusten dogu.

Gure siñismentak laguntza asko izan ditu: Jainkoarena lenen; baña eguzkiaren azpian izan dauanik onena, euskera. Ori nire eretxia baño ezpa'litz, etzendukie siñetsi nai izango bea' ba-da; baña o'elaxe uste daben geyago be, ni baño esku ta itzal andi-agokoak be ba-dira. Bayona'ko Gotzain jaunak, Euskaleñian zear bere ibilaldia egin ondoren, esan eban: «Eri onek bere siñestea ondo zaindu dau. O'etarako zer laguntza izan ete dau?—Asko; baña laguntza'le andia, eztabairik gabe, bere izkuntza, euskera izan da». Eta Iruña'ko Gotzain jaunak: «Napa'oa'n euskerak erlejiñoari asko laguntzen dautsala neuk ekusi dot. Euskera uts-utsik darabilen bazte'etan eta erderazko paperak sa'rtzen ez tiranetan, abadeak askoz obeto dagoz ta euren eriak e'ezago zaintzen dabez lengo oitura za'r-ede'etan».

Euskaldunak eztau euskeraz a'ñen eta biraorik esaten. Euskeraz esan ezin daiteken gaiztakeria ete da? Ez, o'etan asi ezkeru, euskeraz be esan daiteke; baña euskera garbiak o'etarako egiña, erabilia, oitua dan esakunik eztau ta biroa zaka'ia jaurti nai dauan euskaldunak, lenengo euskera itxi ta ukatu egin bea' izaten dau. Itxasotik urtendako urak ba'iro itxasora doazan lez, Jaunak emon euskun euskerak be birao ta itz zikiñetatik aldendu ta Jau-

nagana garoaz: augaitik, euskaldun naizanez maite ezpa'neu be, abade naizanez euskera maite izango neuke: Jaunaren izenean irakatsi bear dodazan siñesmen eta oitura garbien lagun andi ta aizkide mamiña dalako, euskera maite-maite izango neuke ta kristiñau garanez, guztiok maite izan bear geunke.

* * *

Ba-dakizue: izkuntzak eurenez aldakor eta ilkořak dira, baña barneko gaitzez eztira ilten. Darabiñezanen gogo ta ezpanetan bizi dira ta iltektan onein eruz, axolakabez, erabili ezaz ilten dira beti: "*Mors et vita in manu linguæ*". Bizitza ta eriotza mingañean dagoz—esan eban jakitunak Esakunetako liburuan— eta jakitunak diñoan ori izkuntzaz be egi andia da. Erabili ezkerok izkuntza ezin il daiteke: erabili ezik, ostera, eriotzaren atzaparetan dago.

Euskeraren bizia arerioen eskuetan ba'lego..... baña, ez: euskeraren bizia geure, euskaldunen, eskuetan dago; geure gogo ta ezpanetan bizi da ta geure gogoa lotu, barneko gogapena ifo ta nai dogun lez adieraztea galerazo legiken arerio ta indarrik eztago. Beti atxaki ta aiko-maikoetan ibili barik, ziñez, benetan, zintzoro nai ba-dogu, euskera euskaldunok nai dogun arte biziko da. Indaritsu ta sendo biziteko, orain eztaukan laguntzarik asko be bear dau; ori nik esan barik be ondo dakizue; baña orain lez biziteko, euskaldunok ziñez eta benetan nai izatea naiko dau.

Gurasoak euren umeai irakatsiko ba'leutse ta euskaldun guztiok alkarekin maitasunez beti ta edonon erabiliko ba'gendu, gaur daukan baño bizi askar, zoli, mardul eta sendoagoa be laster jadetsiko leuke... "*Itaque, fratres, state et teneite traditiones quas didicistis*". Onelan ba, anai maiteok, beti zagoze zutik euskeraren

alde ta asabakandik ikasi dozuezan izkuntza eder eta oitura onak axola ta ardura andiz zaindu ta gorde egizuez. Afokeri ta atxakiak itxi, alpekeria astindu, jauñti... ta ekin lanari.

Euskera euskaldun guztiona da: Europa'ko izkuntzarik zârena ta gauza askotan bikañena: izkelari jakitunenak, gogoz ikasiaz gañera, zaindu daigula eskatzen dauskue. Aul eta makal dago gaxoa; baña geure odolaren beroaz, geure maitasunaren gañaz, geure biotzetako yoran eta suaz biztu ta bizkoñtu gegike. Euskaldun eta kristiñau gareanez, ori ziñez, benetan nai izan bear dogu. Asabak itxi dauskuen bitxirik ederena da: geure asaben gogoa darakuskun izpilu bizia; asabakin ertsien, ondoen lotu ta alkañtzen gaituan lotzaiki ta txibista bikaña: Jaunak emona ta Jaunagana garoazan izkuntza garbia. ¡Ori da gureztat euskera!

Daniel igarñearen aoz esan eban Jaunak: "*Omnēs populi, tribus et linguæ seruiēt ipsi*". «Eñi, gizeli ta izkuntza guziak bere menpeko izango dira, Jauna goretsiko dabe». Ainbeste giza aldiz Goiko-Jauna goretsi dauan euskerak be, mundua-mundu goretsi dagian, mundua - mundu iraun begi; euskal-izenak dabezan gure mendi oek zutik dagozan arte, euskera ere bizi bedi, ta Jaunagana joan eta beti bereak izateko, bide ta lagun izan bekigu.

Auzpeztu gaitezen ba, Jaunaren aurrean eta bere laguntza uste betez eta gogo beroz eskatu dayogun. ¡Jaun! siñistez asabak baizen sendo, oituraz aek baizen zindo ta garbi iraun nai geunke. Oñetarako Zuk, Jaun oñek, gure asabai emon zeuntsen eta gu aekin ain estu ta ertsi alkañtu, batu ta lotzen gaituan euskera zâr-garbi au, laguntza andia izango yakula uste dogu: bardin oñela ba-da, añen Jaun òna, Euskaleña bere izkuntzaz zaindu ta gorde egizu ta bere alde emen batu garanok be egunen baten Goiko zorionera eroan gagizuz. — Olantxe.

Nihil Obstat.

Lic. J. M. de Barandiarán.

Vista la censura precedente, autorizamos al Presbítero D. Juan B. Egusquiza, autor de las cuartillas censuradas, para que pueda imprimirlas y publicarlas.

Vitoria, 11 de noviembre de 1927.

✠ *El Obispo.*

Lo decretó y firmó S. E. R. el Obispo, mi mi Señor, de que certifico.

Lic. Miguel Ortiz.

Srio.

